

## BASAURIKO UDAL EUSKALTEGIAK EMANDAKO ZERBITZU ETA PRESTAKUNTZA-JARDUERENGATIKO PREZIO PUBLIKOAK ARAUTZEKO ORDENANTZA

### I: HELBURUA ETA APLIKAZIO EREMUA

#### 1. artikulua.- Helburua

Ordenantza honen bidez, Udal Euskaltegiak (aurrerantzean, UE) emandako zerbitzu eta prestakuntza-jardueri dagozkien prezio publikoak ezartzen ditu Basauriko Udalak, Toki Ogasunei buruzko 9/2005 Foru Arauaren 44-50 artikuluek xedatutakoarekin bat etorrita.

#### 2. artikulua.- Aplikazio eremua

Prezio publikoak UEk zuzenean kudeatutako prestakuntza-jarduera guztiei aplikatuko zaizkie.

Era berean, UEk zehaztutako zerbitzu eta prestakuntza-jarduera guztiei aplikatuko zaizkie prezio publikoak, dela udal titulartasunpeko eremu batean, dela hortik kanpoko eremu batean.

### II: SORTZAPENA ETA ORDAINTZEKO OBLIGAZIOA DUTENAK

#### 3. artikulua.- Ordaintzeko obligazioa dutenak

Prezio publikoa ordaindu beharko dute UEren zentroak erabiltzen dituzten pertsona fisiko nahiz juridikoek; edota UEren zerbitzuak jaso, zein hark antolatutako jardueretan parte hartzen dutenek.

#### 4. artikulua.- Ordaintzeko obligazioa

Prezio publikoa ordaintzeko obligazioa jaioko da dagokion ikasturte edo jardueratan izena eman, edota matrikula formalizatzen den unean bertan (horrelakorik eskatzen duten ikastaro, jarduera, zerbitzu, programa, ekitaldi edo antzekoen kasuan).

### III: KUDEAKETA-ARAUAK ETA ERABILTZEKO BALDINTZAK

#### 5. artikulua.- Ordaintzeko arauak

Dena delako jarduera edo zerbitzuagatiko prezio publikoa ordainduko da, jarraian adierazitako bide hauetako bat erabilita:

- a) Diru-sarrera zuzenean eginda, UEk adierazitako kontu korrontean.
- b) UEren kontu korrontera banku-transferentzia eginda.
- c) Internetetik lineako ordainketa eginda.

Edozein bide erabilita ere, ezarritako aldiei dagokien ordainagiria aurkeztu beharko da UEn.

#### 6. artikulua.- Kuota

UEk finkatutako jardueretan izena emateko, Ordenantza honetako 14. artikuluan adierazitako kuota ordaindu beharko du erabiltzaileak.

#### 7. artikulua.- Prestakuntza-jardueretan izena emateko eskabideak aurkezteko epea eta lekua

UEk bere webgunean eta zentroko iragarki-tauletan argitaratuko ditu jarduera bakoitzean izena emateko, izen-ematea berritzeko eta txanda-aldaketa egiteko eskabideak izapidetzeko epeak.

Eskabideok UEren lokaletan aurkeztuko dira, jendeari arreta emateko finkatutako ordutegi eta epean zehar.

#### 8. artikulua.- Erabiltzeko baldintzak

- a. UEk antolatutako prestakuntza-jardueretan parte hartzeko, aurretiaz izena eman beharko da, eta jarduera horretarako ezarritako arauak bete beharko dira.
- b. Prezio publikoa ordaintzen dutenek eskubidea izango dute izena eman zuten jardueran parte hartzeko.
- c. Erabiltzaileak ez badira prestakuntza-jarduerara agertzen, galdu egingo dute ordaindutakoa bueltan jasotzeko eskubidea.
- d. Erabiltzaileek men egingo diete, une oro, instalazioen arduradunek segurtasuna eta erabilera egokia bermatzeko emandako argibideei; hala egin ezean, instalazioetatik alde egin beharko dute.
- e. Erabiltzaile izateari utziko zaio, automatikoki:
  - Erabiltzeko baimenaren edota jardueraren epea amaitzen denean.
  - Programatutako jarduerara agertu ez, eta horretarako bidezko arrazoirik ez dagoenean.

#### IV: EZ ORDAINTZEA. PREZIO PUBLIKOA ITZULTZEA

#### 9. artikulua.- Ez ordaintzea

Kuota bat ordaintzen ez bada, abonatu edo erabiltzaile izateari utziko zaio, eta, hala balitz, JARDUEREN ikasle izateari ere bai.

Ordenantza honetan aurreikusitako prezioak ez ordaintzeagatiko zorrak erreklamatzeko, berriz, premiamenduzko bidera jo beharko da. Hala xedatzen du Toki Ogasunei buruzko 9/2005 Foru Arauaren 49.3 artikulua.

#### 10. artikulua.- Prezio publikoa itzultzea

- 1.- Oro har, ez da ordaindutako prezio publikoa itzuliko; bakar-bakarrik itzuliko da, unean uneko indarreko Kontseilu Errektoreak, ebazpen bidez, hala egitea xedatzen duenean.
- 2.- Era berean, ordaindutakoa itzuli egingo da erabiltzailea erratu, eta egin behar ez zuen diru-sarrera egin duenean: bikoiztutako ordainketa egin badu; behar baino diru gehiago sartu badu; eta abar.
- 3.- Prezio publikoa osorik itzuli ahal izango da, edota, bestela, eman ez diren zerbitzuen edo garatu ez diren jardueren zati proportzionala bakarrik itzuli ahal izango da.

#### 11. artikulua.- Itzultze-eskabideak izapidetzea

Itzultzeetarako eskabideak pertsona fisiko edota juridikoek aurkeztu ahal izango dituzte. Pertsona fisiko edota juridiko horiek jarduteko gaitasuna izan, eta behar bezala identifikatuta egon beharko dute (pertsonalki, nahiz ordezkartzaren bidez), UEren zerbitzu edota jardueren prezio publikoei lotutako diru-sarrera publikoen administrazio-prozedurei dagokienez.

Itzultze-eskaera idatziz aurkeztuko da, eta honako agiri hauek erantsiko zaizkio:

- Egindako ordainketaren egiaztagiriaren jatorrizkoa eta kopia.
- Itzultzea egiteko kontu korrontearen egiaztagiria.
- Eskatzailearen alegazioak oinarritzen dituen beste edozein agiri.

#### 12. artikulua.- Itzultzea eskatzeko prozedura

1. Itzultze-eskabidea aurkeztea, sinatuta (eta egiaztagiriak erantsita).
2. Eskabidea UEn aurkeztea, jendeari arreta emateko ordutegian zehar. Ez dira

izapidetuko eskabide anonimoak, edota jada ebatzita daudenen errepikapenak direnak.

Oinarrizko datuak ez dituzten eskabideen kasuan, edota itzultzea egin behar den ala ez ebazteko beharrezko dokumentaziorik ez daukatenen kasuan, zentroko Zuzendaritzak errekerimendua bidaliko dio eskatzaileari, eta 10 eguneko epea emango dio antzemandako akatsak zuzentzeko. Eskatzaileak hala egiten ez badu, atzera egin duela joko da, eta eskabidea artxibatu egingo da, beste izapideren beharrik gabe. Kasu horretan, interesdunak aukera izango du beste une batean prozedura berriro hasteko, eskabide berri bat aurkeztuta.

3. Bidalitako eskabide guztiak izapidetuko ditu UEk: eskumena duen organoak dagokion ebazpena emango du, eta interesdunari ebazpen hori jakinaraziko zaio.

### 13.artikulua.- Errekurtsoa

Erabiltzaileek berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ahal izango dute ebazpenaren aurka, UEn bertan, ebazpena eman zuen organoaren aurrean. Horretarako, hilabeteko epea izango dute, jakinarazpena edo argitaratzea egin zen dataren biharamunetik zenbatzen hasita.

V: PREZIO PUBLIKOEN ZENBATEKOAK

### 14.artikulua.-

Hona hemen kobratuko diren prezio publikoen zerrenda:

PRESTAKUNTZA-JARDUERETAN PARTE HARTZEAGATIKO PREZIO PUBLIKOAK	
TARIFA OROKORRA	ZENBATEKOA
BASAURIN ERROLDATUTA DAUDENENTZAT (IKASLEKO ETA ORDUKO)	0,70 €
BASAURIN ERROLDATUTA EZ DAUDENENTZAT (IKASLEKO ETA ORDUKO)	1,10 €
LANGABEZIAN EGON, EDOTA DSB E JASOTZEN DUTENENTZAT (IKASLEKO ETA ORDUKO)	0,50 €

VI: BEKAK ETA LAGUNTZAK

### 15. artikulua.-

UEren beka eta laguntzak emango dira aintzat hartuta matrikula formalizatzeko unean indarrean dauden oinarriak.

AZKEN XEDAPENA

Ordenantza honek eragina izango du Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta gero, eta indarrean jarraituko du berau aldatu edo baliogabetzeko berariazko erabakia hartu arte. Hala xedatzen dute Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49. eta 70. artikuluek.

Artikulu gehigarria

Prezio publikoa ezarri, eta berau arautzeko ordenantza onesteko erabakiari hasierako onespina eman zion Udalbatzak, 2016ko azaroaren 24(e)(a)n.